

BIDASOA, MARTIN

HIRIBARRENEN POEMAN



artin Hiribarren Azkaindarrak
1853an argitaratu zuen
Eskaldunac zeritzan poema
eta lan horren 94-95
orrialdetan dator Bidasoa.
Merezi du lerro hauetan

berrargitaratzea, zeren harentzat ere,
guretariko askorentzat bezala, bertakoen
gogoz kontra sortu baitzen Bidasoa muga
J. Mariana eta E. Garibai historiagileek hala
uste bazuten ere. Horregatik, harentzat,
hemengo kontrabandoa anai arteko
merkataritza baizik ez zen.

Oraingo grafiatik hain urrun ez bazebilen
ere, gaurkotuaz jartzen dut; baina
gainerakoan berberak idatzi zuen bezala.
Hara hemen:

BIDASOA

Bidasoa Beratik doha itsasorat,
Frantzia eskuin utziz iguzki alderat.
Sinetsi behar bada aita Mariana,
Ur hori izan behar bi erresumena.
Badakit Garibaik zer duen erazi;
Adimendua behar ametsentzat nausi:
Ez dute Espainolak Bidasoa bere,
Eta ez leku hori nahi behar ere:
Ageri du erdian irla aipatua,
Aski errege handiz mugarri hartua.
Itsasotik arraina heldu da murruka,
Guziei da biltzea zein geiagoka.
Sarentzat direnean tokiak xuhurrik,
Hedatu behar dire elkar aditurik.
Aski piri-pira bada muga inguruan,
Beldurrez behaztapa gardak ilunbetan,
Eman gabe auzoak elkarri harrika:
Bertzelako behar da Eskaldun fereka.
Egin bezate orok lainoki arrantza,
Guti balio luke eginik azantza:
Paris eta Madrilék egorriren jaunak,
Klikatzeko astiroz gizendu arrainak.



Dohatsuago dire, Biriatu zolan,
Egin dezaketenak ixilik bere lan.
Izokin ala xarbo, zer nahi badute,
Azukre ala kafe han sortzen zaiote;
Kontrabanda ederrik badoha gainetik;
Ez dire urrats oro izokinen gatik.

M. Hiribarren 1810ean sortua zen, 23 urte

zituelarik ordenatu zen apez eta Bardez-en
bikario izana, 1865ean Baionako
katedralean ohorezko Kalonje izendatu
zuten. *Eskaldunac* etzuen bere idazlan
bakarra, urte berean argitaratu bait duen
Montevideo-ko berriak zeritzan liburuxka
eta 1858an *Eskaraz egia* deituko zuen
apologia. Nahiko gazte hil zen, 1866ean.

Juan San Martin

